



OIHENART AFORISMOEN VII. LEHIAKETA

EPAILEEN AKTA

Oinarriak jarraituz, honako lagun hauek aritu dira epaile moduan: Cristina Lasa Otxoteko (HEFA Fakultatea), Juan Kruz Igerabide Sarasola (idazlea) eta Eider Rodriguez Martin (HEFA Fakultatea).

Epea amaituta, jasotako 4 bilduma irailean banatu ziren epaimahaikideen artean. Bilera egin da Donostiako campusean, 2017eko azaroaren 6an, 13:00tan, idazkari moduan Antonio Casado da Rochak (Gipuzkoako campuseko Hedakuntza zuzendaria) jardun duelarik. Epaimahaikide bakoitzak aforismo bildumen artean egin duen hautua argudiatu du. Deliberazioaren bitartez, bi bilduma besteak baino kalitate handiagoak direla, eta biek lehenengo saria berdin merezi dutela, aho batez adostu da. Halaber, 2. eta 3. saria ez ematea adostu da. Adostasunera iritsitakoan, behin-betiko epaia idatzi da. Ondoren plikak ireki dira, eta emaitza honako hau da:

- 1. Saria ex aequo (500€): txinparta handiko aforismo bilduma mamitsua, ezustekoz beteriko "Gibelurdin" goitzenpean aurkeztutakoa (Juan Ramon Alberdi Ibarmia).
- 1. Saria ex aequo (500€): dotorezia eta erregulartasun handiko aforismo sorta, hitz joko ugari dituen, "Iratze" goitzenpean aurkeztutako "Ezer ez eta festa" bilduma (Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena).

Lehiaketaren idazkaria egileekin harremanetan jarriko da. Aforismo hautatu batzuk argitaratuz, lehiaketa eta irabazleak aurkeztuko dira 2016ko abenduaren 15an, HEFA Fakultatean egingo den ekitaldian. Bertan sariak eman eta aforismo hautatuak irakurriko dira; agiri bat emango zaie lehiaketan parte hartu dutenei.



Donostiako Udala: Euskara Zerbitzua



Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Donostian, 2017ko azaroaren 6an, sinatzen dute:

Cristina Lasa Otxotekok

*Cristina Lasa*

Juan Kruz Igerabide Sarasolak

*Juan Kruz Igerabide*

Antonio Casado da Rochak

*Acdr*

Eider Rodriguez Martinek

*Eider*